

FUNTSEZKO JARDUERAK

Gehienetan, ikasleek zailtasunak izaten dituzte eskolan jasotzen duten informazio berri guztia momentuan barneratu eta ulertu ahal izateko. Hori da guk gure enpresarekin sahiestu nahi duguna. Gure ikasleek lana eguneratuta ematea eta perfektu barneratzea nahi dugu.

Jakin enpresa laguntza akademia bat denez, gure funtsezko jarduera arazo hau konpontzea da, hau da, eskolaz kanpoko klaseen zerbitzua ematea. Presentzialki zein on-line.



Horretaz gain, gu ere ikasleak garenez, gure bezeroei aholkularitza eskainiko zaie. Pertsona oso aproposak garelako horretarako, izan ere, ikasleok hobekien dakigu azterketen aurreko egunetako urduritasuna eta desesperazioa kontrolatzen.

Bestalde, gure sare sozialetan edukia igotzea eta batez ere eguneratuta egotea jarduera garrantzitsua izango da.

